

SAN MARTINEN KANTUA*

Kortezubiko Tomas Kobeagak kontatuta 1918an

Eskualdeko ikazkin batek basoan zehar zabalik zuen egurra biltzen ia lagun ziezaiokeen galdetu zion deabruari eta honek onartu. Deabruak, ordainsaritzat ikazkinaren arima eskatu zuen, edo horren ordeztan, San Martinen Kantuaren inguruan zenbat zekien erakustea. Ikazkinak bigarren aukera hau hartu zuen. Orduan deabrua eta ikazkinaren artean ondoko solasaldia sortu zen:

- Deabrua: Esan bat.
- Ikazkinak: Gure Jauna bera da bat, berak salbatuko gaitu.

- D: Esan bi.
- I: Erromako altarak bi, gure Jauna bera da bat, berak salbatuko gaitu.

- D: Esan hiru.
- I: Hiru Trinitadeak hiru, Erromako altarak bi, gure Jauna bera da bat, berak salbatuko gaitu.

- D: Esan lau.
- I: Lau Ebanjelistak lau, hiru Trinitadeak hiru, Erromako altarak bi, gure Jauna bera da bat, berak salbatuko gaitu.

- D: Esan bost.
- I: Jesukristoren bost lagak bost, lau Ebanjelistak lau, hiru Trinitadeak hiru, Erromako altarak bi, gure Jauna bera da bat, berak salbatuko gaitu.

- D: Esan sei.
- I: Sei argimutilak sei, Jesukristoren bost lagak bost, etabar.

- D: Esan zazpi.
- I: Zazpirak Sakramentuak; sei Jesukristoren bost lagak bost, etabar.

- D: Esan zorrtzi.
- I: Zortzirak dira zeruak, zapirak Sakramentuak, etabar.

- D: Esan bederatzi
- I: Bederatziak Ordenamentuak, zortzirak dira zeruak, etabar.

- D: Esan Hamar.
- I: Hamarrak mandamentuak, bederatziak Ordenamentuak, etabar.

- D: Esan hamaika.
- I: Hamaika mila aingeruak, hamarrak mandamentuak, etabar.

- D: Esan hamabi.
- I: Hamabi ordu santuak, hamaika mila aingeruak, etabar.

- D: Esan hamairu.
- I: Ez dira hamairu. Zu ez zauden orduan ez duzu inoren arima galdu behar.

* San Martinen Kantua abestea eta errosarioa egitea parekoak dira.